

# Auzoak, pezetaz pezeta

Hilaren 18an aurtengo aurrekontua eztabaidatu-ko da Udalbatzarrean. 1999ko abenduan onartu-takoaren ildotik, aurten lehendabiziko aldiz hiriko elkarteek beren proposa-mentak egiteko aukera izan dute. Bai auzo elkarteek, baita bestelako gizarte-taldeek ere hainbat eskaera aurkeztu dituzte Udalean.


## Ainhoa Irazu

Proposamenak bideratu eta jasotzeko ardura Auzo eta Hiritarren Partaidetza Sailaren esku egon da. Ekimen aitzindaria da, eta aurrera eramateko aipatu sailak protokolo zehatza abiarazi du.

Elkarteek iazko urrira arteko epea izan zuten beren lehen proposamenak egiteko. Apirilaren 27an amaitu zen protokolo-aren bigarren fasea, proposamen zehatza-agoak aurkeztekoa, alegia.

Guztira, 14 proposamen sorta aurkeztu dira. Horietatik lau, auzo elkarteetatik bideratu dira, eta gainerakoak, gizarte-taldeek eginikoak. Donostiako 400 bat elkartetara luzatu zen deia. Elkarteek %3,5k besterik ez du parte hartu ekime-nean.

**Elkarteek %3,5k besterik ez dituzte proposamenak aurkeztu**



Hilaren 18an udal aurrekontua onartuta, aurtengo proiektu garrantzitsuenak erabakita geratuko dira.

## Auzo elkarteek kordinadora

Auzo elkarteek dagokienez, Gros, Loiola, Martutene, Txomin, Altza-Larratxo, Egia, Antigua, Añorga Txiki, Amara Berri eta Herrerakoek idatzi bateratua aurkeztu dute Auzo eta Hiritarren Partaidetza Sailan. Elkarteek salatu dutenez, Udal Gobernuak ez du ez donostiarren, ez Donostiako elkarteek partehartzea bermatu. "Aurrekontua lehen eztabaida egin baino sei egun lehenago jaso genuen.

Beraz, ez genuen sakon aztertzerik izan. Ezin da 34.000 milioi pezeta zertara bideratuko diren sei egunetan erabaki. Udal Gobernuak berak bi hilabete eman ditu aurrekontua adosteko", esan digu Tomas Gaztelu hiriko auzo elkarteek koordinadorako kideak.

Hori guztia dela eta, koordinadorak proposamen zehatzik ez egitea erabaki du. "Ekimenaren berri izan genuenean oso begi onez ikusi genuen. Tamalez, Udal Gobernuak ez du hartutako konpromisoa bete, ez

## Udal aurrekontuaren inbertsioak

MILIOIAK	MILIOIAK	MILIOIAK	
<b>GROS-ATEGORRIETA</b>			
Zuhaiztiko kiroldegia	250	Kontadores-en	250
Okendo kultur etxea handitzea	50	<b>AMARA BERRI-AMARA ZAHARRA</b>	
Ulia parkearen proiektua	10	Eritetxeetako errepidea bikoiztea	234
Adinduentzako apartamenduak Ategorrietan	250	Amarako kultur etxea	100
<b>INTXAURRONDO</b>		Araba parkea	100
Lau Haizetako espaloiak berritzea	80	San Bartolomeko egitasmoa	50
Monseko pistak estaltzeko egitasmoa	1-5	Morlanseko urbanizazioa	23
<b>ALTZA-HERRERA-BIDEBIETA</b>		<b>EGIA</b>	
Sarbideak hobetzea	75	Cristina Enea parkearen lehiaketa	55
Herreraren planeamendua	39	Ametzagainako parkearen proiektua	20
Auditz-Akular eta Landarroko planeamendua	80	Aldakoneako hirigintza lanak	10-50
Txingurriko isurketak ezabatzeko neurriak	20	Matigoxotegiko bidegurutzea	49
Aparkalekuak Larratxon	250	<b>AIETE</b>	
Bidebietako plaza berrantolatzea	5	Puioko parkea	64
Babes Ofizialeko Etxebizitzak		Errondo pasealekuko espaloiak	8
		Bera Berako futbol zelaia	75
		<b>ZUBIETA</b>	
		Pilotalekua eta plaza berritzea	310
		Hirigintza lanak	150
		<b>PARTE ZAHARRA</b>	
		Osasun zentroa berritzea	23
		Zarata mapa eta hainbat lan	15
		Parte Zaharra birgaitzea	275
		Sarriegi plaza berritzea	225
		Zaborrontzi berriak	12
		<b>ANTIGUA</b>	
		Matia kaleko hirigintza lanak	40
		Igarako Korta proiektua	30
		Hirugarren adinekoentzako apartamenduak	100
		<b>LOIOLA-MARTUTENE</b>	
		Plazaburuko hirigintza lanak	103
		Ibaialdeko kirol azpiegiturak	15
		Babes Ofizialeko Etxebizitzak ibaiertzean	250
		Lugañene baserriaren birgaitzea	5
		<b>IGELDO</b>	
		Kanpineko espaloiak	25
		Erdiguneko hirigintza lanak	100

taberna jatetxea

**TXISKUENE**

- Eguneko menuak
- Afariak
- Ospakizunak



Begiristain pasealekua 85  
(Hospitaletako bidea) • Tel.: (943) 45.09.87


**Dr. Beobide**

Medikua, Odontologaria

**Odontologia estetikoa**

**(943) 276227**

Ametzagaña 49, Behea  
**20012 DONOSTIA**



**ALKANDORA  
ARROPADENDA**

Andia 1 Tel.: 943 42 03 49 DONOSTIA

**NARRIKA  
taberna**

**Narrika 16**  
**Tel.: (943) 427327**

**SIRTA**

HONDARRIBIA, 19  
Tel.: 943 43 13 55 - 20005  
DONOSTIA

**JUANTXO**  
taberna

**BOKATAK ETA PINTXO EDERRAK!!**

ENBELTRAN KALEA • PARTE ZAHARRA • Tel.: (943) 42.74.05

# Auzo elkarteek ustez, Udalak ez du elkarteek partehartzea bermatu

ditu herritarren parte hartzea errazteko bide eraginkorrak jarri", diosku.

## Adostasunik ez

Enrique Ramos PSE-EEko zinegotzia ez dator bat koordinadorak adierazitakoarekin: "Guk herritarren parte hartzea indartzeko borondate guztia dugu. Hala ere, inoiz ez da horrelakorik egin, eta beraz, hainbat oztopo aurkitu ditugu bidean, esaterako, aurrekontuaren proiektua asko atzeratu da. Horrez gain, Aste Santuko oporrak izan dira. Hala ere, elkarteek eta alderdi politikoek gutxie-



Kontadoreen hainbat etxebizitza eraikiko dira.

nez hiru aste izan dituzte proiektua aztertzeke", jakinarazi digu Ramosek.

Auzo eta Hiritarren Pardaidetza Sailko zinegotziaren arabera, argi dago ekimena zabaldu eta hobetu beharra dagoela. "Hala ere, guk ahal duguna egin dugu. Ezin ahantz daiteke, gainera, urte osoan garela harremanetan auzoko elkarteekin,

eta aurrekontua egiterakoan beren eskaerak betearazten saiatu gara", adierazi digu Enrique Ramosek.

## Proposamenak Antiguano eta Ulian

Koordinadorak ekimenean parte hartu

# Eta gizarte taldeek zer diote?

Hirian lanean ari diren taldeek hainbat eskaera egin dituzte Udalean. Lerrootan proposamen nagusiak bildu ditugu.



### MERKATARITZA GANBARA

- Sektorearen modernizazioan inbertitu behar da, erronka berriei aurre egin ahal izateko. Baliabide garrantzitsuak bideratu behar dira, batik bat telekomunikazioen esparrura.
- Enpresa irizpideetatik abiatutako turismo planifikazioa martxan jarzea komeni da.
- Inbertsio berriak lortzeko lan egin behar da.
- Enpresei babesa eman behar zaie, hirian jarrai dezaten.

### ATZEGI

- Giza talde zehatzei zuzendutako zentroak eta zerbitzuak sustatu behar dira, eta daudenak giza talde horien beharretara egokitu.
- Muga psikiko, fisiko eta sozial larriak dituztenei laguntza teknikoa eskaini behar zaie. Gainera, giza taldeok bergizarteratzeko neurriak hartu behar dira.
- Herritarren arteko elkarbizitza erraztuko duten zentro eta zerbitzuak behar dira.



### GUTXITU FISIKOEN KORDINAKUNDEA

- 2001eko aurrekontuak ez ditu gutxitu fisikoek beharrek kontuan hartu. Hainbat programa-zerbitzu abiarazi behar dira: etxeko laguntza eta bonotaxi zerbitzuak, esaterako.
- Udal zerbitzu eta zentroak, komun publikoak adibidez, giza talde honen beharretara egokitu behar dira. Horrez gain, Udalak



## Udal aurrekontua 34.000 milioi pezetako da

ez duen arren, Antiguako eta Uliako auzo elkarteek proposamen sorta bana aurkeztu dute. Uliako Auzo Elkarteak 230 milioi eskatu ditu Uliako Ategorrieta-Saguesen hainbat lan egiteko, "aurrekontuak egitasmo horietarako diru kopururik aurreikusi ez duelako", diote elkarteko kideek.

Besteak beste, Sagueseko aparkalekua egiteko ikerketa proiekturako, Indiano-eko espaloiak eta Ategorrietako galtzara berritzeko eta zaharren egoitzan konponketa lanak egiteko dirua eskatu dute. Horrez gain, Uliako Parkea osatzeko lurak erosteko 100 milioi eskatu dituzte.

Antiguako Auzo Elkarteak, bestalde,


auzoaren behar nagusiak bildu ditu aurkeztutako idatzian: Matia kalearen urbanizazioa, Benta Berri eta Portueneko aparkalekuak, garraio publikoaren loturak eta zerbitzuak hobetzea, auzoko gazteen zentroa eraikitzea, haurtzaindegia lekuz aldatzea eta abar. Proiektu horietako batzuk aurten martxan jartzea aurreikusi du Udalak, esaterako, Matia kalea urbanizatzea.

### Diru gehiena proiektu potoloetara

Donostiako auzo elkarte gehienek diotenez, Udalak ez die merezi hainbat arreta eskaintzen. "Zenbait auzo nahikoa utzita daude: Loiola, Altza-Herrera, Egia... Hainbat eta hainbat proiektu martxan jartzeko eskaerak egin dira, baina adarra jotzen digute. Diru gehiena proiektu potoloetan joaten da", dio auzo elkarten koordinadorako kideak.

Beste hainbeste diote giza elkarteetako ordezkariak. Esaterako, Emaus Fun-

dazioaren ustez, Udalak ez du ingurugiro araudia errespetatzen. "Horregatik gaikoko bilketa eta etxeko hondakin arrisku-tsuen bilketa antolatu behar dira", diote. Bestalde, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Koordinadorak oso larritzat jo du aurten go aurrekontuak giza talde horri diru kopururik ez bideratzea. Bestalde, Atzegiren aburuz, "gutxitu fisikoei zuzendutako diru kopurua sinbolikoa da". Azkenik, Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasunak baliabide ekonomiko gehiago eskatu ditu, zerbitzuak pairatzen dituen gabeziei aurre egin ahal izateko.



Aurten Sarriena plaza berrituko da.

bazterketa kasuak sahiesteko araudia betetzeko konpromisoa hartu behar du.

### GIPUZKOAKO KONTSUMITZAILEEN BATASUNA

• Kontsumo Zerbitzu Integrala abiarazi beharko litzateke, kontsumitzaileak behar bezala informatzeko eta auzietan bitartekaritza

zerbitzua eskaintzeko, besteak beste.

• Beharrezkoa da kontrol zerbitzuak martxan jartzea, gehiegikeriak saihesteko.

### ONCE

• Udalak ikusmen arazoak dituztenei begira, hainbat neurri hartu

behar litzuke.

Batetik, sema-

foro berriei

soinu tresna

jarri behar

zaie. Bestetik,

zebrabideen

zorua bereiz-

tea komenigar-

ria litzateke,

ikusmen arazoak dituztenek arazo-

rik gabe bereiz dezaten.

### EMAUS FUNDAZIOA

• Diru irabazi nahirik gabeko produkzio sektorean jarduera ekonomiko berriak sortzeko lan egin behar da. Ez du zentzurik soilik teknologia berrien bila-

kaerari begiratzea.

• Babes ofizialeko industria zoruan talde behartsuentzako erreserbak egin beharko lirateke.

### KALAPIE

• Bizikleta Planak 2001erako aurreikusitako dirua jartzea eskatzen dugu, hau da, 159 milioi pezeta.

Aurrekontuak 50 milioi besterik ez ditu aurreikusi bidegorriak egiteko. Diru kopuru horrekin, Kontxako bidegorria egin eta ibaialdekoa osatuko litzateke. Horrez gain, jarduera osagarriak antolatzeko aukera izango genuke, esaterako, bizikletaren behatokia eta bizikletaren sustapenerako kanpainak.

